

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

456/2021 Foru Agindua, abenduaren 15koa, partzialki baiesten duena Itelazpi SAK abuztuaren 13ko 317/2021 Foru Aginduaren aurka jarritako aukerako berraztertze errekurtsua. Foru agindu horrek aldatu egin zuen ekainaren 10eko 273/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez arautu baitzen Santikurutze Kanpezu herriaren Cebollero onura publikoko 235. mendian dagoen eta Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen loar telekomunikazio zentroaren okupazioa

Abuztuaren 13eko 317/2021 Foru Aginduaren bidez aldatu egin zen ekainaren 10eko 273/2019 Foru Aginduaren hirugarren xedapena. 273/2019 Foru Aginduaren bidez, arautu egin zen Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen eta Santikurutze Kanpezuko herriaren Cebollero izeneko onura publikoko 235. mendian kokatuta dagoen loar telekomunikazio zentroaren okupazioa. Foru agindu horren berri eman zitzaion Itelazpi SAri 2021eko irailaren 3an, eta jakinarazi zitzaion foru aginduak amaiera ematen ziola administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez zezakeela, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jar zezakeela hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren aurrean, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoarekin, eta betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, APAPEL) 123. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Foru aginduarekin batera, 2021eko uztailaren 19ko honako txosten hau eman zitzaion alderdi interesdunei: "Txosten tekniko ekonomikoa: loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 235. mendia okupatzeagatik kanonaren kalkulua".

2021eko irailaren 9an, epearen barruan, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoko Bateratuan sartu zen Nekazaritza Saileko diputatuari zuzendutako 56769 erregistro zenbakiko berraztertze aukerako errekurtsua. Errekurtsu hori Itelazpi SAK jarri zuen abuztuaren 13ko 317/2021 Foru Aginduaren aurka, eta foru agindua indargabetzeko eta beste agindu bat emateko eskatu zuen.

Itelazpi SAren ustez, 317/2021 Foru Aginduak, 273/2019 Foru Aginduaren hirugarren xedapena bete beharrean, 2021erako kanon berri bat ezartzen du, unitateko balio berrietan oinarritua, eta gehiegikeriaz jokatzeko du bere xedean. Itelazpiren ustez, Foru Aldundiak beste foru agindu bat eman behar zuen, urte arteko KPIa hasieran ezarritako balioei aplikatuz, Itelazpi SAK 2020ko abenduaren 15ean eta 2021eko maiatzaren 17an igorritako kontzeptuetatik abiatuta, alde batera utzi gabe instalazioa ikuskatzeko eta, hala badagokio, zentroan benetan dauden elementuen kopurua zehazteko ahalmena, baina ezin du balio berririk ezarri. Itelazpi SAK adierazi du beste emakida bat eman duela Foru Aldundiak, bete beharreko prozedura alde batera utzita.

Bestalde, Itelazpi SAK adierazi du urte arteko KPIaren aldakuntza ez dela txosten tekniko ekonomikoan jasotako "urteko batez besteko igoera"ri dagokiona, baizik eta EINek argitaratutako urte arteko balioari dagokiona. Gaineratu duenez, etxolen okupazioaren balorazioaren kasuan, kanona ezartzeko balio duen zenbatekoa ez da aipatutako txosten tekniko ekonomikoan jasotako balioak aplikatzearen ondorio.

Aurreko gertakari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko honako oinarri hauek:

Berraztertze aukerako errekurtsua epearen barruan eta errekurritutako foru agindua eman zuen organo berari aurkeztu zitzaion. Horrez gain, interesdunak betetzen ditu ebazpen proposamen honen xede den errekurtsua jartzeko baldintzak, gaitasunari eta legitimazio aktiboari dagokienez.

Planteatutako alegazioei dagokienez, eta, zehazki, unitateko balio berriak ezartzeari eta KPlaren aldakuntza aplikatzeari dagokienez, alde batetik, 2021eko uztailaren 19ko "Txosten tekniko ekonomikoa: loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 325. mendia okupatzeagatiko kanonaren kalkulua" aztertu da. Txosten horretan egiaztatu da behar bezala justifikatu gabe aldatu direla unitateko balio edo prezio batzuk (zehazki, guztira agertzen diren 22etatik 6), okupazioa arautzean ezarri zen kanonaren unitateko balio edo prezioarekin alderatuta.

Gainera, 273/2019 Foru Aginduak argi eta garbi ezartzen zuen, hirugarren xedapenaren seigarren apartatuan, zein izan behar den kanona berrikusteko araubidea: "Kanona urtero berrikusiko da, aurreko hamabi hilabeteetako KPlaren arabera eguneratuko diren aleko prezioak aplikatuta azaleraren baldintzei, dorrearen altuerari eta kanona eguneratzean instalatuta dauden elementuei, irizpide gisa hartuta 1. dokumentuan (txosten tekniko-ekonomikoa: loar telekomunikazio zentroak onura publikoko 235 mendia okupatzeagatiko kanonaren kalkulua) adierazitakoak, eta berrikuspena egingo da okupazioa arautzen duen foru agindua aldatzearen bidez".

Kanona eguneratzeko KPlaren aldakuntza aplikatzeari dagokionez, 273/2019 Foru Aginduaren hirugarren xedapenaren 6. apartatuan ezarritako indizeak ("...aurreko hamabi hilabeteetako KPlaren arabera eguneratuak...") KPlaren urte arteko aldakuntzari egiten dio erreferentzia, eta ez txosten tekniko ekonomikoa erabili den KPlari.

Etxolen okupazioaren balorazioari dagokionez, egia da akats aritmetiko bat dagoela zenbatekoa kalkulatzeko. 13m²-ko etxolaren unitateko prezioa 30,72 euro/m² izango da, eta 282m²-ko etxolarentzat, berriz, honako hau: 30,72 euro/m² 25 m²-ra arte; 5,12 euro/m² 25 m²-tik 200 m²-ra bitarte, eta 3,07 euro/m² 200 m²-tik 282 m²-ra bitarte.

Beraz, errekurtsogilearen eskaera baiesten da; izan ere, kasu honetan, okupazioaren araubidean aurrez ezarritako eta onartutako unitateko balioak aplikatu behar ziren, urte arteko KPlaren aldakuntzaren arabera eguneratuak, eta, gainera, etxolak okupatzeagatiko zenbatekoa kalkulatzeko egindako akatsa zuzendu behar da. Horretarako, txosten tekniko ekonomikoa berria idatzi duen enpresak eranskin bat egin du, kanonaren kalkularekin, errekurtsogilearen eskaria kontuan hartuta. Horren arabera, kanona 14.962,3 eurokoa da urtean.

Bestalde, nahiz eta errekurtsogileak eskatu ez, baina aldaketaren xedearekin lotuta dagoenez eta duela gutxi beste espediente batzuetan adierazi denez, aldatu egin behar da abuztuaren 13ko 317/2021 Foru Aginduaren lehen xedapenaren bosgarren apartatua, emakidaren onuradunari segurtasuna emateko, aurrerantzean kanona eguneratzeko formula zein izango den zehaztuz. Formula horrek, antzeko espedienteen ildoari jarraituz, aurrez ezarritako unitate balioak KPlaren urte arteko bilakaeraren arabera eguneratuko ditu.

Hori guztia, albo batera utzi gabe Mendien Araudia onesten duen otsailaren 22ko 485/1962 Foru Dekretuaren 174.2 artikuluan katalogatutako mendi publikoetan egiten diren aldi baterako okupazioen urteko kanonari buruz ezarritakoa: "Kanon hori bost urtean behin berrikusi ahal izango da, Nekazaritza Ministerioaren agindu edo Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez, alderdi interesdunetako edozeinek eskatuta, guztiei entzunda eta Basoen Zerbitzuak alde aurretik txostena eginda". Berrikuspen arrazoi hori aplikatu egin behar da administrazio emakidaren baldintzetan agertu ez arren; izan ere, gaur egun indarrean dagoen araudia da, eta Mendiei buruzko Estatuko 43/2003 Legean eta Arabako Mendiei buruzko 11/2007 Foru Aginduan garatu gabe dagoen inguruabarra da.

Hau da, ezin dira nahastu kanonaren eguneratzea, KPlaren aldakuntzetara egokitzeko, zeinak kanonaren zenbatekoak gora edo behera egitea ekar baitezake, eta mendiei buruzko araudian aurreikusitako bost urteko berrikuspena, KPlaz bestelako irizpideen arabera egin beharrekoa.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiaren Sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Partzialki baiestea Itelazpi SAk abuztuaren 13ko 317/2021 Foru Aginduaren aurka jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa. Agindu horren bidez, aldatu egin zen ekainaren 10eko 273/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez arautu baitzen Santikurutze Kanpezuko herriaren onura publikoko 235. zenbakiko Cebollero mendian kokatutako eta Itelazpi SA sozietateak kudeatutako loar telekomunikazio zentroaren okupazioa. Hain zuzen ere, baiesten da kanona kalkulatzeko okupazio araudian ezarritako unitateko balioak aplikatzea, urtetik urterako KPlaren aldakuntzen arabera eguneratuta, eta ezesten da unitateko balioak emakida bitzta osorako aldaezinak izatea.

Bigarrena. Aldatzea abuztuaren 13ko 317/2021 Foru Aginduaren lehen xedapeneko bosgarren eta seigarren apartatuetako lehenengo paragrafoak. Hau dioen lekuan:

“5. Itelazpi SAk Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari ordaindu beharreko kanona, guztira, 14.962,30 eurokoa da urtean. Zenbateko horretatik, loar telekomunikazio zentroaren txosten tekniko ekonomikoaren eranskinaren arabera, 14.962,30 euro/urte dagozkio telekomunikazio zentroaren erabilera pribatiboari, eta 0,60 euro/urte linea elektrikoak baso jabari publikoa okupatzeari.”

Beste hau esan behar du:

“5. Itelazpi SAk Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari ordaindu beharreko kanona, guztira, 14.962,30 eurokoa da urtean. Zenbateko horretatik, loar telekomunikazio zentroaren txosten tekniko ekonomikoaren eranskinaren arabera, 14.961,70 euro/urte dagozkio telekomunikazio zentroaren erabilera pribatiboari, eta 0,60 euro/urte linea elektrikoak baso jabari publikoa okupatzeari.”

“6. Kanona 5 urtean behin berrikusiko da aldi horretako KPlaren arabera eguneratuko diren aleko prezioak aplikatuz azaleraren baldintzei, dorrearen altuerari eta kanona eguneratzean instalatuta dauden elementuei, irizpide gisa hartuta kanona kalkulatzeko txosten tekniko ekonomikoan adierazitakoak, eta okupazioa arautzen duen foru agindua aldatzearen bidez.”

Hirugarrena. 317/2021 Foru Aginduaren gainerakoa hasieran onetsi zen moduan geratzea.

Laugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrari, Itelazpi SAri eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritako moduan.

Foru agindua alderdi interesdunei jakinaraztean, txosten tekniko ekonomikoa aldatzeko eranskinaren kopia ere igorri beharko da.

Bosgarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Administrazio bidean behin betikoa den foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 15a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE